

ntiko Udala

AZPEITIKO UDALAREN ETA JUAN DE ANTXIETA MUSIKA ESKOLAREN ARTEKO HITZARMENA.

Azpeitian, 2020ko martxoaren 3a

ELKARTU DIRA

Alde batetik: Nagore Alkorta Elorza, Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburua, erakunde horren izenean eta horren ordezkari gisa (Udalbatzak 2020ko martxoaren 2an hartutako akordioa).

Beste Aldetik M^a Jose Bikendi Aranaga, Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolako Lehendakaria, erakunde horren izenean eta horren ordezkari gisa.

Bi aldeek elkarri onartu diote hitzarmen hau izenpetzeko behar adinako gaitasuna, eta

ELKARRI AZALDU DIOTE

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulok udalerrien eskumen propioak arautzen ditu. Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutako esparruan, udalerriek kultura eta kultura-jarduerak antolatzeke eta sustatzeko eskumena izango dutela jaso da.

Eskumen horretan oinarrituta, Azpeitiko Udalak, **kultura eta festa alorrean** musika bandarekin batera kontzertuak, emanaldiak eta ikuskizunak eskaintzen ditu. Kultur ekintza horiek herrian dagoen musika eskolaren bitartez egiten dira.

Idanik aurreko mendean herriko seme eta musiko talde batek, Udalaren laguntzarekin, abian jarri zuen **herriko musika banda**. Urtez urte herriko banda etengabeko eraldaketa prozesu batean aritu da, eta horren ondorioz bere funtzionamendua aldatzen joan da. Egun, herriko musika banda elkarte bat da, barne antolaketa eta funtzionamendu propioa duena. Udalaren laguntza zuzena du hainbat arlotan, eta ezinbesteko harremana herriko Juan de Antxieta Musika Eskolarekin.

Herriko Juan de Antxieta Musika Eskola izan da bandaren harrobi nagusia, eta baita etengabeko eraldaketa prozesu hori bultzatu duena ere Udalarekin elkarlanean.

Hitzarmen honen helburua Azpeitiko Udalak eta Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolak elkarlanean herriko **musika-bandaren antolaketa, prestakuntza eta ekitaldi eskaintza programa** bideratzea da, bi erakundeen arteko funtzioak arautuz eta Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolaren finantziazioa bermatuz.

Horiek horrela, bi erakundeek, elkarrekin ados jarrita, eta bakoitzak duen ordezkartza erabiliz,

HITZARTU DUTE:

LEHENA.- Helburua.

Hitzarmen honen helburua da Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolaren bidez Azpeitiko herriari herriko musika-bandaren antolaketa, prestakuntza eta ekitaldi eskaintzaren nondik norakoak zehaztu eta alde bakoitzaren betebeharrak zehaztea.

Musika Bandaren eginkizunak burutzeagatik Azpeitiko Udalak Juan de Antxieta Musika Eskolari diru-laguntza bat emango dio Azpeitiko Udaleko Diru-Laguntzak emateko ordenantza arautzailearen baitan (G.A.O. 101 zk. 2012ko maiatzaren 29an argitaratua).

Hitzarmen honen ondorioz egingo diren jarduerak diruz lagunduko dira, seigarren estipulazioan zehaztuko den eran.

BIGARRENA.- Diruz lagunduko diren jarduerak

a) Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolak, hitzarmena dirauen bitartean Azpeitiko herriari herriko musika-bandaren antolaketa, prestakuntza eta ekitaldiak eskaintzeaz arduratuko da.

b) Musika bandako eginkizunak urtean zehar beteko dira, eta horiek aste egunetan eta jai egunetan egingo dira jardueren arabera.

Urtez urte, jardueren programa bat antolatuko da.

c) Musika Bandaren eginkizunetan, besteak beste, ondoko funtzioak eskainiko dira:

- Musika Banda eta Musika Eskolaren arteko erlazioa finkatu eta sendotzea.
- Bandan instrumentu desberdinen oreka bat mantentzea.
- Musika Banda batean parte hartzen duten instrumentuak ezagutzera ematea herrian.
- Musika Bandaren entsaioak eta ekitaldiak gidatzea.
- Musika Banda gaztearen entsaioak eta ekitaldiak gidatzea.
- Partituren artxiboaren ardura: ordenatu, partiturak atera eta jaso, fotokopiak, karpetetan jarri eta jaso, partitura berriak erosi-lortu.
- Instrumentuen mantentzea: konpondu beharrekoak konpontzera eraman, egoitzan bertan egin daitezken mantentze txikiak (perkusio instrumentuak...)

HIRUGARRENA.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Azpeitiko Udala

Hitzarmen honetan aurreikusitako musika kultur ekintzak gauzatzeagatik, Azpeitiko Udalak urtean 49.000,00 euroko diru-laguntza emango dio Juan de Antxieta Musika Eskolari.

Diru-laguntzaren erabilera xedearekin bat datorrela justifikatzea Juan de Antxieta Musika Eskolaren gain izango da.

Musika Eskolako musika bandarekin lotutako gastuak diru-laguntza kopuruarekin bat ez datozenean, Udalaren eskumena izango da ekitaldi bakoitzaren amaieran aurkezturiko zuriaketaren arabera dagokion erregularizazioa gauzatzea.

LAUGARRENA.- Indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia URTEBETEKOA da; hau da, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31era artekoa izango da eta urtero luzatuko da gehienez 4 urterarte (2023 arte, hau barne).

Nolanahi ere, urtez urteko diru-laguntza, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan diru kopuru nahikoa bermatzearekin baldintzatua egongo da.

Baldintza hori betez gero, diru-laguntza eskaerarekin batera hitzarmena luzatutzat emango da, beti ere, eskatzaileak diru-laguntzaren onuradun izateko baldintzak betetzen baditu.

Hitzarmena amaitu egingo da aurreikusitako epea bukatzen denean, edota onuradunak diru-laguntza eskaera egiteari uzten badio edo eta ez balitu bere betebeharrak beteko (horretarako gutxienez hilabete aurrez idatziz salaketa egin beharko da).

BOSGARRENA.- Diru laguntza eskaera.

Azpeitiko Juan de Antxieta Musika Eskolak ekitaldia amaitu baino lehen (abenduaren 31 baino lehen) diru-laguntza eskabidearen eredu ofizialari jarraiki, diru-laguntza aurkeztu beharko du Udaleko Erregistro Orokorrean.



Eskaera orriarekin batera, ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

- Eskatzaile edo/eta Ordezariaren NAN agiriaren kopia.
- Erakundea edo enpresaren IFK agiriaren kopia.
- Eusko Jaurlaritzako Elkarrekin eta Entitate Erregistroan izena emanda dagoenaren Ziurtagiria, badagokio.
- Kontu Korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- Elkarrekin jarduera orokorraren gastuen eta sarreraren aurrekontua.
- Diru-laguntza eskatzen denerako proiektu, jarduera edo programaren gastuen

eta sarreraren aurrekontua.

- **Musika-bandaren urteko programazio zehatza.**
- Administrazioarekin Zerga obligazioak betetzen dituela adieraztea (Udalak egiaztatuko du adierazpen hori)
- Zinpeko adierazpena, non-eta, hala badagokio agertuko den beste diru sarrera batzuk daudela eta/edo beste erakundeetan diru-laguntza eskatu duela.

SEIGARRENA.- Diru-laguntzaren ordaintzea.

Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan gauzatuko da:

Lehen ordainketa, urtarrileko lehen hamabostaldian egingo da, diru-laguntza zenbateko osoaren %50ari dagokiona.

Bigarren ordainketa, uztailaren lehen egingo da, diru-laguntza zenbateko osoaren %50ari dagokiona.

ZAZPIGARRENA.- Justifikatzeko epea eta modua.

Diru-laguntzak emateko Ordenantza arautzailearen 14. artikulua arabera eta Juan de Antxieta Musika Eskolak epealdi edo urte bakoitzaren ondorengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen diru kontuen azalpena edo diru zuriketa aurkeztu beharko dio Azpeitiko Udalarri, Musika Eskolako Musika Bandaren eginkizunekin lotutako gastuak justifikatuz eta hitzarmenean jasotzen diren bete beharrak bete direla egiaztatuz.

Zuriketa egin ondoren, diru-laguntzaren zenbatekoa eta Musika Bandaren eginkizunekin lotutako gastuen arteko aldea erregularizatu egingo da, kasu bakoitzean Udalak edo onuradunak dagokion diferentzia ordainduz edo itzuliaz.

ZORTZIGARRENA.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen hau Azpeitiko Udalen diru-laguntza Ordenantza Orokorren baitan dago onartua, hau da, zuzeneko diru-laguntza izenduna delako, non onuradunak Udalen Aurrekontuetako Gastu-atalean identifikaturik egongo diren.


Hitzarmen honetan aurreikusi gabeko guztietarako, osagarri gisa aplikatzekoa izango da Azpeitiko Udaleko Diru-Laguntzak emateko ordenantza arautzailea edo/eta Diru-Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.

Lankidetzaren hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta juridikoki Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 4.1.d) artikuluan dago sartua, eta beraz, haren aplikazio zuzenetik kanpo dago, nahiz eta lege horren irizpideak ezarriko diren hitzarmen honen indarraldian sor daitezkeen zalantza eta hutsuneak erabakitzerakoan.

etiko Udala

Ondorioz, Lankidetza-hitzarmen honen indarraldian sor daitezkeen auziak Administrazioako auzi-gaietarako jurisdikzioak erabakiko ditu.

Eta ados daudenaren seinale, bi aldeek Hitzarmen hau sinatu dute:

Azpeitiko Udalak Alkateak  Nagore Alkorta Elorza	Herriko Musika Eskola Zuzendaria  Mari Jose Bikendi Aranaga
 Azpeitiko Udala ALKATETZA	

2020 API. 20